



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKA**

**EGIAZTAPENERAKO KODE SEGURUA SORTZEA.**

Urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearekin eta urriaren 1eko 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearekin bat, eta herritarrei gure entitatearekin harremanetan jartzeko komunikazio-sistema telematiko bat emateko xedez,

543/2020 ebazpenaren bidez, ebatzi dut:

Lesakako Udalaren egiaztapenerako kode segurua sortzea  
<https://sedeelectronica.lesaka.net/> helbide elektronikoan, ezaugarri hauekin:

1. Dokumentu bakoitzerako sortutako kode guztiak bakarrak eta ausazkoak izango dira, eta lotura izango dute sortzailearekin.
2. Ziurtapen kualifikatuan oinarritutako zigilu elektroniko aurreratuko sistema baten baliokide izango da segurtasun kriptografikoa.
3. Ondorio legalek irauten duten aldi oso-osoa iritsi ahalko da kodeak egiaztatutako dokumentura, egoitza elektronikoaren bidez –eta, halakorik balego, barruan duen fitxategi elektronikoaren bidez–. Berehala eta doan iritsi ahalko dira dokumentura pertsonak.
4. Ulertuko da toki-entitatea identifikatuta dagoela Interneteko bere atarian edo iristeko beste edozein gunetan bere gisa argitaratuko den informazioarekiko baldin eta haiek egoitza elektronikotzat jotzen badira legez.
5. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakunde honen egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko agintzea.

Lesakan, 2020ko abenduaren 15ean.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray.